ueu

# *Moneta Politika Gurean ESZENATOKIAK*



Ekai center INNOVATING PUBLIC POLICY

## Zergatik da garrantzitsua

- Bai Eskozian, bai eta Katalunian ere, oinarrizko "mehatxua" izan da.
- Hiritarren pertzepzioan, hil ala biziko kontua izan daiteke
- Beraz, erabakia hartzeko orduan, funtsezkoa izan daiteke erabaki horrek gure etorkizun monetarioan izan ditzakeen ondorioak aztertu eta ezagutaraztea.

# Eurogunetik kanpo geratzeko arriskuak

- Arrisku "objektibo" baino gehiago, "mehatxu" moduan interpretatu behar da.
- Espainiak / Frantziak duten pisu politikoa erabili ezkero, gerta daiteke, nahiz eta haientzat ere koste politikoa handia izan.
- Europarentzat ez litzateke zentzu ekonomikorik izango. Behin behineko neurri gisa uler daiteke bakarrik.

  (Ez daude arrazoi objektiboak EH Eurogunetik kanpo uzteko. Egitura produkti-boa, defizita, zorra, …)

## Eurogunetik kanpo geratzeko arriskuak

- Baina Euroa bera zalantzetan dago. Une zehatz batean, Euroa desegiteko edo ahultzeko prozesuan urrats bat bezala uler daiteke EH edo Katalunia eurogunetik ateratzea, arrazoi batekin edo beste batekin.

- Mehatxu horiek mehatxuak dira baina gero benetan gauzatzea …

# Eurogunetik kanpo geratzeko arriskuak

- EH Eurogunetik kanpo uztea nolabaiteko “zigor politikoa” izan beharko litzateke. Eurogunearen erdian, produktiboki indartsua den herrialde baten hutsune bat sortaraztea … oso zaila da mantentzeko.

- Gertatzekotan, epe laburreko kontua izango litzatekeela pentsatu behar dugu.

# Eurogunetik kanpo geratzeko arriskuak

- Baztertu daiteke %100ean Eurogunetik derrigorrez atera behar izatea? Ez, jakina, erabaki politikoa litzatekeelako.

- Balizko aurrekariekin gertatzen dena hartu beharko litzateke kontuan (Katalunia? Eskozia?)

# Eurogunetik kanpo geratzeko arriskuak

- Eurogunetik ateratzeko dauden arriskuen inguruko azterketa espekulazio hutsa da, gehienbat.

- Eurogunetik balizko ateratzearen ondorio ekonomikoak aztertzea da garrantzitsuena.

- Euroaren ohiko mitifikaziotik aparte, zein izan da Euroaren barne egotearen eragina EHn?

# Eurogunea Europan




Iturria: The Economist

# Eurogunea Europan




Iturria: POLGEONOW

# Eurogunea Europan

- Eurogunea: Europar Batasuneko 19 estatukide.

- Beste 7, teorian, Eurogunera sartzeko derrigortuta, konbergentziarako irizpideak bete ezkero: Bulgaria, Errumania, Hungaria, Kroazia, Polonia, Suedia, Txekia.

- EBko 2 estatu, salbuespenekin: Danimarka, Erresuma Batua

- Euroa erabiltzen duten EBtik kanpoko estatuak:

  - EBrekin hitzartuta: Andorra, Monako, San Marino, Vaticano
  - EBrekin hitzartu gabe: Kosovo, Montenegro

.. Eurogunetik kanpo dauden herrialde aurreratuak:

- Erresuma Batua
- Islandia
- Norvegia
- Suedia
- Danimarka (Euroarekin lotuta)
- Suitza (Euroarekiko lotura desegin du)

# Eurogunea Europan

- Beraz, argi dago herrialde aurreratua izatea eta Eurogunearen barne egotea ez direla zergatik bat etorri behar.

- Azterketa sakonagoa, serioagoa behar dugu.

# Euroaren balantzea

- Adituen artean, gero eta kontsentsu handiagoa: Euroa martxan jartzea, edo jarri zen moduan behintzat, akats historikoa izan zen.

- Batez ere, bi arrazoi hauengatik:
  - Estatukideen egitura ekonomikoen arteko ezberdintasunengatik
  - Eurogunea ez delako “estatu” bat.

# Euroaren balantzea

| EUROAREN OINARRIZKO HELBURUAK | |
|---|---|
| **HELBURUAK** | **BALANTZEA** |
| KAPITALAREN MUGIKORTASUNA SUSTATU | Lortuta |
| DOLARRAREN GEHIEGIKERIEI AURRE EGIN | Ez da lortu |
| ESKUALDATZE-KOSTEAK TXIKIAGOTU | Garrantzi ekonomiko txikia |

## Euroaren balantzea

.. Euroaren helbururik funtsezkoena: Eurogunearen barne, kapitalaren mugikortasuna erraztea. Teorian, interes handiko helburua zen gure ekonomiarentzat:

- Aurrezleentzat, aukera gehiago izango luketelako aurrezkia hobeto kokatzeko.
- Inbertsorentzat, aukera gehiago izango luketelako inbertsioentzako behar dituzten finantza baliabideak aurkitzeko eta baldintza hobeagoetan.

## Euroaren balantzea

.. Helburu hori lortu zen … txarrerako. Eta kaltegarria izan zen oso bai herrialde zentralentzat, bai eta periferikoentzat ere.

- Herrialde zentralak inbertsio produktiboetarako behar zuten kapital gabe geratu ziren.

- Herrialde periferikoak kapitalaz itota geratu ziren, kapital hori inbertsio espekulatiboetara, higiezinetara, etab. bideratuz.

# Euroaren balantzea

.. Krisia lehertu eta gero:

- Herrialde periferikoetara mugitzen jarraitu du kapitalak, herrialdeen erreskateak direla eta.

- Baina, batez ere, banku sistemara.

# Euroaren balantzea

- Teorian, Euroaren izaera aldrebesari buelta emateko irtenbidea: Eurogune osoa benetako estatua bihurtzea.
- Baina inor ez dago horretarako prest Europan.
- Hala ere, inor ez da ausartzen egoera horren ondorio logikoak ateratzen, publikoki behintzat, Euroa zalantzetan jartzea politikoki beldurgarria delako:

  a) Euroari buruz hiritarrek duten mitifikazioagatik

  b) Trantsizio epearen ondorio ekonomikoei buruzko zalantzengatik

# Euroa. Aldaketa saihestezina da

Kontua da:

.. Zein norabidean?

.. Zein erritmoan?

.. Zein trantsizio prozesurekin?

# Aukera teorikoak

1. Eurogunearen oraingo eraketa mantendu
2. Europar Batasuna Estatu Federala bihurtu.
3. Herrialde batzuk Eurogunetik kanpo
4. Eurogunea bi moneta-esparrutan banatzen da.
5. Euroa desagertzen da.

# Oraingo eraketa mantendu (1)

- Krisiak berak erakutsi du ñeuroakò eta ñeuroakòegon badaudela.

- Gobernantza ekonomikoa bateratzeko neurri batzuk hartu dira (bankuen gainbegiratzea é )



# Oraingo eraketa mantendu (2)

Baina:

.. Moneta-krisiak aurrera darrai

.. Hartutako neurriek ez dituzte sakoneko arazoak konpondu



.. Grezia eta herrialde periferikoak é

.. Zalantza handiak herrialde zentraletan.

# Politika Ekonomikoak batu?

.. Baina:

a) Egiturazko funtsezko ezberdintasunak

b) Ezberdintasun kulturalak

c) Ez dago horretarako inolako borondate politikorik



# Herrialde periferiko baten bat ateratzea

AZTERKETA TEORIKOA

.. Zorrari aurre egiteko aukera: Berregituraketa / Debaluazioa

.. Eurogunearen irudi ekonomikoa, beharbada, hobetuko litzateke (hazteko gaitasuna, finantza kontuak ordenatuak, é )

# Herrialde periferiko baten bat ateratzea

## AZTERKETA TEORIKOA

- Kapital merkatuei bidaltzen zaien mezua: "Egoera zailean dagoen Estatu bat Eurogunetik irten daiteke".

- Epe laburrera, kezkagarria. Baina epe luzera, kapitalaren esleipenaren efizientzia hobetuko litzateke.



# Herrialde zentral bat ateratzea

.. Alemania / Austria / Holanda / Finlandia?

.. ñMarkoaòberrezartzea?

.. Markoa berbaliotuko litzateke.

.. Euroak, alderantziz, balioa galduko luke.



# Herrialde zentral bat ateratzea

- Kapital-fluxua atera den herrialderantza.
- Alemania: Ekialdera begirako proiekzioa (Errusia / Txina)
- Arrisku politiko larriak EBren etorkizunerako.

# Eurogunea bitan zatitzea

- Eredua ez da batere argia
- Zatiketa é zeren arabera?
- Bi moneta-esparru ala hiru? (U.K. é )
- Erdi mailako herrialde batzuei buruzko zalantzak (Frantzia, Bélgika, é )



# Eurogunea bitan zatitzea

- Ondorio politikoak, kulturalak, etab. é aurreikustezinak.
- Trantsizio epearen zailtasun politikoak
- Oso konplexuak diren alde askotariko kontsentsuen beharra.
- Trantsizio epean, ziur asko, truke tasa finkoak, adostutako moneta sistema baten barru.

# Euroaren desagerpena

- Traumatikoa izango litzateke, ikuspuntu soziologiko eta politikotik.

- ñEuropa mailako moneta sistemaò batekin edo ñtruke tasa finkoòekin bateragarria izan daiteke:

  - ñAldibereko ateratzeaò: Kapital fluxuen desoreken arriskuak murriztuko lirateke.

  - Kapital esleipenean dauden akatsak zuzentzeko testuinguru psikologiko egokia.

  - Sistemarako sarrerak eta irteerak erraztuko lirateke.

# Gobernantzako doiketa batzuk

Eredu baten zein bestean:

- Arauak eta zigorrak argiak eta sinesgarriak izan behar dira.
- Eurogunetik borondatez edo derrigorrez ateratzeko aukera eta baldintzak arautu behar dira.
- Politika ekonomikoen integrazioa bat etorri behar da aukeratutako ereduarekin.

# Teoriatik errealitatea: Trantsizio kosteak

- Funtsezko arazoa ez da etorkizuneko eszenatoki teorikoen balorazioa, eszenatoki horretarako trantsizio kosteen balorazioa baizik.

- Oso erreferentzia praktiko gutxi



# Trantsizio kosteak

- Arazo tekniko handiak (moneta berriaren jaulkipena, sistema operatiboen aldaketak, software, kontratuak, etab.)



# Trantsizio kosteak

.. HERRIALDE PERIFERIKOAK:

- Hasiera batean, Euroa egon badago Estatu horretan, nahiz eta moneta fisiko gisa baino ez izan.



# Trantsizio kosteak

.. HERRIALDE PERIFERIKOAK:

- Kapitalen ihesaldia
- Bankuen egoera larriagotu egingo litzateke.
- Zorraren berregituratzea / debaluazioa
- Urte batzuetan, kapital merkaturako heltzea zaildu egingo litzateke.

# Trantsizio kosteak

.. HERRIALDE ZENTRAL BATEN IRTEERA

- Kapital ihesaldia Eurogunetik

- Baina horren eragina Eurogunean geratzen diren herrialdeen artean banatuko litzateke.

- Euroaren balio-galtzea

# Eurogunearen etorkizuna (1)

- Batasun monetarioa errealitatea da.
- Epe luzera, beste moneta egitura ezberdin baten beharrean gaude
- Baina Euroa zalantzetan jartzea arrisku handiko kontua da epe laburrera.
- Zuhurtasun handiz jokatu behar da estrategiak diseinatzeko orduan.



# Eurogunearen etorkizuna (2)

- Euroa baino efizienteagoak diren ereduak aurreikustea erraza da.

- Baina trantsizio epearen koste ekonomikoak, operatiboak ï eta, batez ere, politikoak- oso handiak dira.

# Eurogunearen etorkizuna (3)

- Arduradun politikoak koste horien beldur dira, oso modu nabarmenean.

- Baina: Trantsizio kosteak aldagarriak dira, eszenatokien arabera.



# Eurogunearen etorkizuna (4)

- Trantsizio kosteak oso ezberdinak dira, batez ere, ondoko bi eszenatoki hauetan:

  a) Eurogunea bera zalantzetan jartzen bada edo herrialde zentral bat ateratzen bada

  b) Herrialde periferiko bat ateratzen bada

## EH Eurogunean

.. Orain arte, kaltegarria izan da Eurogunea guretzat.

- Bai krisialdian
- Bai krisi aurreko urteetan

# EH Eurogunean

- Kasu honetan ere, herrialde zentralen ekonomia bezala jokatu zuen gureak krisia lehertu aurretik

- Horren ondorioz, deskapitalizazio eragin hori gurean ere gertatu zen.

# EH Eurogunean

- Krisia lehertu eta gero:

  - Kapital fluxuen ondoriozko deskapitalizazioa murriztu da
  - Erreskate eta diru politikaren ondoriozko deskapitalizazioa gertatu da.

- Hau ere oso kaltegarria da EHrentzat:

  - Gure BPG, EBren bataz besteko %130.
  - Ez gara erreskatatuak izan. Erreskatatzaileak baizik.

## EH Eurogunean

- Gerora begirako faktoreak:

  A. Zer gertatuko da Eurogunearekin?

  B. Zeintzuk izango dira Eurogunearen politikak?

Garrantzi handiko kontua:

.. Moneta-esparru baten egitura ekonomikoa baino askoz garrantzitsuagoa izan daiteke moneta-esparru horretan aplikatzen den Moneta Politika.

- Politika hedatzailea ala ez hedatzailea?

- Zer egiten da hedapen monetarioarekin? Nora eta nola bideratzen da?

## EH Eurogunean

- EHrentzat, berez, politika hedatzaileak ez dira onuragarriak (gure BPG per capita, %130ean)

- Hedapen monetarioaren onurak … zein punturaino ailegatzen dira EHra?

# Euroa: Zabalkunde kuantitatiboa krisi garaian

Moneta-zabalkundea: Nahiz eta modu irregularrean izan, nabaria izan da krisi garaiko hazkunde prozesua.

EUROSISTEMAREN BALANTZE KONTSOLIDATUA 2008 – 2015 (milloi EUR)




Source: ECB/Saxo Group

# Euroa: Zabalkunde kuantitatiboa krisi aurretik

EUROSISTEMAREN BALANTZE KONTSOLIDATUA 1999 – 2008 (milioiEUR)




Source: ECB/Depth Dynamics

# Euroa: Zabalkunde kuantitatiboa krisi aurretik

- Eurosistemaren helburua: Inflazioa %2ren azpitik baina hurbil mantentzea izanik, epe luzera, BPGren hazkunde tasaren gainetik kokatuko da zabalkunde kuantitatiboa.

BANKU ZENTRALEN BALANTZEAK,BPGREN %AN (2000-08)




Source: ECB / FED / Hinde Capital

Long Term Programs

# Hazkunde kuantitatiboa. Bi operazio handienak

| LTRO delakoak 2011-2012 | AKTIBOAK EROSTEKO PROGRAMA 2015-2016 |
|---|---|
| - Bilioi 1 € (Eurogunearen %10)<br>- Europako bankuen aldeko maileguak<br>- Epea: 3 urte<br>- Interes tasa: % 1 | - 60.000 Milioi € / hilabeteko<br>(“Gutxienez” 1,14 bilioi €: Eurogunearen BPGren %11)<br>- Balore publiko eta pribatuak<br>.. “Shared Risk”: %20<br>.. “Non shared risk”: %80 (banku zentral nazionalak). |

# Juncker Plana eta EBZren Plana 2015-2016

Milioi eurotan



## Moneta-zabalkundea, gero eta harreman gutxiago du sektore pribatuko kredituarekin



## Moneta Politika

# EUROSISTEMATIK EKONOMIA ERREALERA



# Moneta Guneak
# eta Moneta Guneak



# Moneta Guneak eta Moneta Guneak



## EH Eurogunean

- Eurogunearen moneta politika, gure ustez, efizientziarik gabekoa izan da, eta EHrentzat kaltegarria.

- Beraz, alde horretatik, gauzak beste modu batez egiteko aukera nabaria izango litzateke moneta-esparru propio bat izatea, edo moneta-esparru efiziente baten barne kokatzea.

## Laburbiltzeko

A. EH Eurogunetik derrigorrez ateratzea ez litzateke logikoa ikuspuntu ekonomikotik.

B. Gertatzekotan, “mendeku” politikoa izango litzateke.

C. Gertatzekotan, behin behineko kontua izango litzateke

D. Nolanahi ere, gertatu ezkero, ez da zergatik kaltegarria izan behar

# Laburbiltzeko

E. Berez, herrialde batek bere politika monetarioaren kontrola izatea abantaila estrategiko nabaria da.

F. OINARRIZKO IRIZPIDEA: Moneta esparru “handia” baino gehiago, moneta esparru “sendoa” behar du EHk

# Laburbiltzeko

G. Eurogunetik balizko ateratzearen balorazio zehatza, une zehatz horretan dagoen egoera eta testuinguruaren arabera egin beharko da:

a) Zer moneta-esparrutik ateratzen da

b) Zer moneta-esparrura joateko (edo EHko lurraldera mugatutako esparrura joateko den)

# Laburbiltzeko

H. Neurri handi batean, arazo psikologikoa da (ik. “Tsiprasen sindromea”). Euroaren mitifikazio irrazionala

Beraz, lan pedagogikoa garrantzi handikoa da: Euroaren onurak eta kalteak modu objektiboan azaldu eta zabaldu behar dira.

## Laburbiltzeko

I. Moneta-esparru bakoitzaren egitura ekonomikoa baino garrantzi handiagoa du lurralde horren moneta-politikak.

Beraz, moneta-esparru bakoitzeko klase politikoak moneta-politika kontrolpean jartzeko eta ondo kudeatzeko duen gaitasuna kontutan hartu behar da.

# Moneta Politika Gurean
# ESZENATOKIAK

